

txintxarri



Azal kolore anitzeko herritarrak

Zer aurkitzen dute Lasarte-Oriara iristen diren immigranteek? / 6-9

Euskal Inauteriak

Otsailaren 18an Euskal Inauteri berriak ospatuko dira, egun osoko egitarauarekin / 2

Lasarte-Oriako eta Aiako bertso eskoletako kideak herriartekoan aritu ziren Arrieskalletan / 2

LOKEKO atletak pistako denboraldiaren fase erabakigarrian sartu berri dira / 10



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- | | |
|-------------------|----------------------------|
| ✓ Odolkiak | ✓ Txistorra |
| ✓ Solomo antzutua | ✓ Solomoa baratxuritan |
| ✓ Etxeko txorizoa | ✓ Tripakiak, saltxitxak... |
| ✓ Basurde burua | ✓ Baserri pateia |

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Ordutegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45



Keinu trikiek bizitza alaitzen dutelako...

*San Valentin honetan,
oparitu ongizatea!*

Gure tratamendu eta
zerbitzuak opari-txartel
moduan oparitu ditzakezu!
Zerbitzu mistoak

Manikura eta pedikura - Makillajea - Aurpegi eta gorputz tratamenduak - Mota ezberinetako depilazioak - Solariuma - Belileen lindatzea eta permanentea - ...



Bapo afaldu ostean, bertso saio animatua eskaini zuten Lasarte-Oriako eta Aiako bertsolariek. TXINTXARRI

Lasarteoriarrak eta Aiarrak herriartekoan

Lasarte-Oriako Bertso Eskola eta Aiako Aia eta Kitto bertsotan aritu ziren larunbat iluntzean Arrieskalleta elkartearen, bapo afaldu ostean. Epaileek erabaki zuten hobeto aritu zirela lasarteoriarrak: hamabost puntu jaso zituzten, eta bederatzi aiarrak.

Iñigo Gonzalez

Lasarte-Oriako eta Aia eta Kitto eskolen artekoa izan zen Gipuzkoako herriarteko txapelketako larunbateko saioa. Gaietako bat bi izan zen esatea zertan diren desberdinak bi herriak. Iñaki Gurrutxaga aiarrak bota zituen batzuk, baina antzekotasunak ere badituztela

nabarmendu zuen: "Bi herrietan dago bertsotarako giro alai". Frogatuta geratu zen hori larunbat iluntzean, Lasarte-Oriako Arrieskalleta elkartearen egindako bertso-saioan. Giro ederrean aritu ziren kantukantari bi eskoletako kideak, bertso afarira hurbildu ziren ikusleen aurrean.

Ane Labaka, Unai Muñoa eta Asier Azpirozek osatu zuten lasarteoriatarren taldea. Aiako eskolaren izenean, berriz, Aritz Hernandez, Jokin Zumeta eta Iñaki Gurrutxaga aritu ziren. Uxue Loinazek egin zituen gai-jartzaile lanak.

Dastatutako afariari buruz hitz egitea, Santa Ageda, Aiatik

Lasarte-Oriara lanera etorritako gazte baten eta Aian baserri bat erosi duen lasarteoriatar baten ikuspuntuak, bi herrien arteko desberdintasunak, bietako zein ote den politena, aiarren kronika larunbateko saioari buruz edota Zubietan egiten hastear diren erraustegia. Bistan denez, gaiak desberdinak eta orotarikoak izan ziren; imajinazioz eta umorez egin zieten aurre horiei bi eskoletako bertsolariek. Barre-algarak eta txaloak ez ziren falta izan saio osoan zehar.

Lasarte-Oriako eskola garaile

Atzoko saioan behin eta berriro nabarmendu zuten bertsolariek euren arteko lehia ez zela garrantzitsuena, giro ederrean eta lagunartean bertsotan aritzea baizik. Halere, Gipuzkoako herriarteko txapelketaren baitakoa izan zenez jarduna, epaileek bi taldeen lana baloratu zuten. Bertsolari bakoitzak agurra abestu bitarteko tartea baliatu zuten deliberatzeko: Lasarte-Oriako bertso eskolak hamabost puntu bildu zituen, eta bederatzi aiarrak.

38 talde lehen fasean

Hasi berri den lehenengo fase honetan Gipuzkoa osoko 38 talde ariko dira, beste hainbeste saiotan. Martxoaren 9ra arte iraungo du.

Guztira, hiru taldeko hamar multzo daude, eta lauko bi;

bakoitzetik talde bakarra sailkatuko da bigarren fasera.

Beste hiru fase gehiago

Lehen fasea gainditzen dutenek, bigarren fasean aritzeko aukera izango dute. Hau martxoaren 23tik apirilaren 9ra egingo da. Aurreko fasetik sailkatu diren 12 taldeak lau multzotan banatuko dira, hirunaka, eta multzo bakoitzetik bat sailkatuko da finalaurrekoetarako.

Finalaurrekoak berriz, maiatzaren 6an eta maiatzaren 13an izango dira. Lehenengo saioa Alegian egingo da, eta bigarrena, berriz, Bergaran. Bakoitzean bi talde ariko dira bertsotan.

Finalaurrekoetan sailkatuak, finalerako txartela lortuko dute, eta maiatzaren 27an izango da herriartekoaren azken fasea hau. Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan izendatuko da garailea.

BAPO AFALDU OSTEAN, ASKOTARIKO GAIK KANTATU ZITUZTEN LASARTE-ORIAKO EARRA! ETA AIAKO AIA ETA KITTO BERTSO ESKOLETAKO BERTSOLARIEK ARRIESKALLETA ELKARTEAN.

Aterik ate koplaka

Arratsaldeko seietan abiatu ziren herriko hainbat talde, bakoitza bere aldetik, herriko kale eta auzoetan barrena Santa Ageda bezperan, makilak eskuetan eta koplak ahoetan. Euria ez zen oztopo izan oles egiteko. Zabaletako auzotarrak, Erketz Dantza Taldea eta Xumela bertso eskolarekin batera aritu ziren kantuan.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Hutsetik hasteko 'Hariak'

Dantza garaikidea, hezur-haragizko 'txotxongiloak' eta testuak nahastuz, horien bitartez, emanaldi bikaina eskaini zuen larunbatean Ertza dantza konpainiak: 'Hariak', euren bizitzak sostengatzen zituzten soka horiek apurtu eta zerotik hasi behar izan duten pertsonetan oinarritutako ikuskizuna izan zen.

Urpeko unibertsoa pantaila handian ikusgai

Danok Kide Gurasoen Elkarateak antolatutako Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloari hasiera eman zitzaion pasa den astelehenean. Hiru lan ikusi zituzten bertaratutakoek, eta datozen bi astetan luzatuko da jaialdia.

Martin Vicioso

Jabi Atutxaren ‘Solopecios. Memoria sumergida’ dokumentalak ireki zuen astelehenean 2017ko Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Urtero legez, Danok Kide Gurasoen Elkarateak antolatu du jaialdia, Realaren Itsaspekoen sekzioaren eta Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz. Gerturatu ziren herritarrek itsaspekari galiziar eta euskaldunen arteko elkarlana isladatzen duen filma ikusi ahal izan zuten, lehenik.

Solopecios taldeak 15 urte igaro ditu Galiziako eta Euskal Herriko uretan barneratzen galdutako itsasontzien bila. Besteak beste, Blas de Lezo gurutzaontziaren, Skyro kargaontziaren eta Hochheimer itsasontzi naziaren hondakinak aurkitu dituzte beraien espedizioetan.

Donostiako CIMASUB jaialdian Urrezko Baranda irabazi zuen proiektzioak, eta urperatze batean bizitza galdutako Alexis Maciari eskaini zioten saria.

Bertaratutako herritarrek Alberto Santolariak zuzendutako Gelidium alga gorriari buruzko dokumental motza ikusi zuten ondoren.

Jardunaldia borobiltzeko Manuel Gonzalez Benaigesen



Galdutako itsasontzien aztarnak izan zituzten ikusgai, besteak beste. TXINTXARRI

‘Criaturas Olvidadas’ lanarekin gozatu zuten. Ohiko itsaspeko filmek arrain handiak eta izaki ikusgarriak dituzte ardatz. Honetan, berriz, oharkabeen pasatzen diren horiek aztertzu zituzten.

Beste bi jardunaldi

Datozen bi astelehenetan luzatuko da Itsaspeko Zinema Zikloa. 13an Cinemasub jaialdian sarituak izan ziren bi lan ikusiko dituzte: Guillaume Vincenten ‘La conquete des oceans’ eta Jose Carlos Rando Lararen ‘Los secretos de la noche’.

Lehenak Jacques Costeau itsaspekari famatuaren kide François Saranoren abenturak ditu ardatz. Katxalote artean murgildu zen Maurizioko uretan.

Bigarrena, aldiz, dokumental musikatu motza da eta Mediterraneoko irudiak erakutsiko ditu.

Hilaren 20an amaituko da zikloa. ‘La conquete des oceans’ lanaren bigarren zatia ikusteaz gain, beste bost lan motz ikusteko aukera izango dute arratsaldeko 19:00tatik aurrera Manuel Lekuona kultur etxera gerturatzen diren lasarteoriatarrek.

NEURE KABUZ



GORKA LASA

Franelazko izarak

Etxean askotan izaten da gonbidatuen gela bat, norbait bisitan etorriko zaigun itxaropenaz bizi baigara eta soberan izaten dugun gela atondu, txukundu eta gonbidatuena bezela izendatzen dugu. Nik ere badut horrelako gela bat etxean. Ez ditut gonbidatuak sarritan izaten eta horregatik askotan alabaren jostailuekin edo tolestu eta jaso beharreko erropaz beterik izaten da.

Nire gurasoak izaten dira gela hau gehien erabiltzen dutenak. Bilobatxoarekin egoteko aitzakiarekin etortzen dira asteburu pasa eta beroientzat prestatzen dut gela. Orain urte batzuk, amak, neguan etortzen zirenerako franelazko izara batzuk oparitu zizkidan. Izara urdinak aitarentzat eta arroxak kolorekoak berarentzat, pare bat ohe banatarako. Aitaren ametsetako izarak omen ziren, aspalditxoan zuen kapritxoa izaki. Izara lodi eta goxoak, ohean sartu eta eternitaterarte harrapatzen zaituzten horietakoak.

Aurten ere gonbidatu ditut gurasoak etxera, hotz gehien egin duen astean, orain hiruzpalau aste hain zuzen. Eta okasioak eta beharrak eskatzen zuelako atera nituen armairutik franelazko izarak, aitaren ametsetako izarak.

Amaren ohea jantzi nuen aurrena, ximurrik gabe, zuzen zuzen, berdin berdin. Aitarena jantzen hasi orduko ordea, malko batek egin zidan ihes, franelazko izara gainean orban urdin ilun bat utziz. Hari begira, ohartu nintzen aita ez zela berriz itzuliko, ez zuela berriz ametsik egingo bere ametsetako izara artean.

Malko orbana izaratik poliki-poliki desagertu zen gisan, utzi gintuen iaz gure aita ere, inoiz amestuko ez lukeen bukaerara iritsiz. Hiltzea baita guztiok ziur egingo dugun gauza bakarra. Bizitza hauskorra baita, zartaduraz betea, pitzaduraz josia eta eten hoietako hutsunea askotan amets gaizto bilakatua.

Baina denborak aurrera darrai, etengabea, eta etenak sorturiko zauriak sendatuz. Maite genuen hori, franelazko ametsetan biziko dela jakitun.

Txileko irakasle taldea Usurbilgo Lanbide Eskolan

Hamar egunez egongo dira bertan, lanbide eskolan erabiltzen diren metodologia berrien inguruko formakuntza jasotzen.

Irakasleen hitzetan, "oso esperientzia baliagarria" izaten ari da lanbide eskolan jasotzen ari diren formakuntza. Eskola bertako ikasleek sortu dituzten ikasmaterialak aztertuz, zuzenean ikasleei jartzen zaizkien erronken garapenen berri izaten ari dira egonaldian.

BERPATA
TSOLK
AGUTIK
KZIAK

ANDONI EGAÑA
MAIALEN LUJANBIO
IKER ZUBELDIA
UNAI AGIRRE

Gaijartzailea:
AITOR MENDILUZE

Otsailaren 17an,
19:00etan **Basque
Culinary Center**en

Ondoren
gutizia bereziz
osatutako
luntx-afaria

20 €

SARRERAK SALGAI
HERNANI **Kronika** 943 33 08 99,
Kixkal, Aralar
ASTIGARRAGA **Ikatza**
EREÑOTZU **Irrintzi**
GOIZUETA **Amaia kafetegia**

ANTOLATZAILEA
URUMEAKO **kronika**

LAGUNTZAILEA
INSALUS

BCC
URUMEAKO
ATSEGINDEGI

23:30etan
autobusa **doan**
Hernanira
buelatzeko



Biyak Bateko kideak eta Sasoeta-Zumaburu eskolako guraso talde bat asteazkeneko bileran. TXINTXARRI

Sasoeta-Zumaburuko gurasoak kezkatuta

Irailean, haurrek ikasturte berria Zumaburuko eskolan hastea nahi dute gurasoek. Biyak bateko kideekin bilera egin zuten asteazkenean psikomotrizitate gelaren arazoaz hitz egiteko.

Maidor Azurmendi

Sasoeta-Zumaburu eskolako guraso talde bat asteazkenean Biyak Bateko zuzendaritzako kideekin bildu zen salto gela edo psikomotrizitatea lantzeko gela baten eskaeraz hitz egiteko.

Momentu honetan Zumaburuko eraikinean hainbat dira egin behar diren berritze lanak. Konponketa lan batzuk eginda, eraikuntza arazo batzuk azaleratu ziren eta hauek konpontzeko lanak esleituko dira laster Hezkuntza sailetik gurasoei adierazi zaienez. Baina ez dakite zehazki zenbat luzatuko diren.

Udalak utzita, gela batzuk euskaltegia zegoen lekura mugitu ziren eta jantokia bihurtu zuten Biyak Bat erretiratuen egoitzako areto nagusia, hain zuzen, "momentuan gertuen zegoen baliabidea zelako". Egunero bertan 50 haurrentzako jantokia jarri eta kendu egiten da. Gurasoak eskertuta azaldu ziren

asteazkenean Biyak Bateko kideekin, udalaren erabakia onartu eta euren seme-alabei erabilera uzteagatik. Hala ere, txikiek badute hutsune bat. Bileran gurasoek azaldu zuten, psikomotrizitate gelarako lekuri ez dute momentu honetan eta Biyak Batekoiei galdetu nahi izan zieten ea beste espaziorik zuten eurei uzteko moduan.

Biyak Bateko zuzendaritzak eskaera ulertu zuen arren, beste espaziorik ez dutela adierazi zuen aho batez, jantokirako erabiltzen den gelak ere euren ekintzetan hainbat arazo eragin dituela azalduz.

Kezka

Gurasoen benetako kezka ikasturte berria Zumaburuko eraikinean ez hastea da.

"Konponketa lanak luzatzekotan, irailean bertan hasteko aukera desagertuko litzateke, hilabete batzuk gehiago egin beharko dituzte

eskolatik kanpo eta ez dugu hori nahi. Larrialdi baterako prestatutako instalazioak direla oraingoak eta ez denbora luzean bertan egiteko. Udalak hainbat konponketa egin dituen arren, espazio arazoa dago hainbat ekintza egiteko".

Gurasoek gaineratu zuten, ulertzen dutela egoera baina "badakigu, ez dela hil ala biziko kontua psikomotrizitate gela ez edukitzea, baina euren curriculumean Hezkuntzak zehaztuta dauka derrigorrezko irakasgaia dela eta gure seme alaben kasuan ez dira betetzen ari".

Instalazio egokiak behar dituztela eta, Hezkuntzaren erantzun azkarra eskatzen dute gurasoek.

"Lanak ahalik eta epe laburrenean egitea bermatu beharko luke Hezkuntza sailak. Konturatu behar dira, ikasturte osoa egin dutela umeak eurentzat diseinatu ez dauden lokaletan eta hori ez dela irtenbidea".

Harrera ona izan du edukiontzi marroiak

2.916 erabiltzailek eskuratu dute biohondakinak bereizteko sisteman parte hartzeko txartela

Txintxarri

2.916 erabiltzaileekin abiatzen da edukiontzi marroia herrian. Biohondakinak bereizita biltzeko kanpainan herritarren parte-hartzea handia izan dela azpimarratu du udalak. Udal ordezkariak ohar bidez egindako balorazioan aipatu dute "hondakinak sortzearekin arduratsu izateko mezua ondo barneratu da".

2.881 familiak eta 35 hondakin-sortzaile berezik eman dute izena sistema berrian. Lasarte-Oriako etxeen % 40 inguruk jaso dituzte

txartela, zakarrontzia eta erabili eta botatzeko poltsak.

Hemendik aurrera ere posible izango da bereizita biltzeko sisteman alta ematea. Udaletzeko 4. solairuko bulegoetara gerturatuta herritarrek euren txartela eskatu ahal izango dute eta bertan emango zaie ere materiala. Ingurumen sailetik, zerbitzuan izena ematen jarraitza animatu nahi dituzte herritarrek "biohondakinen bilketa ondo eginda, ondoren lortzen den materiala kalitatezkoa izango da".



TXINTXARRI

Kultura eta zapore desberdinak

Sasoeta ikastetxeko gimnasioa kultura, plater, jaki eta zapore desberdinen topaleku izan zen igandean. Burunzpe guraso elkarteak bazkari multikulturalaren laugarren edizioa antolatu zuen; bertaratu zirenek ohitura desberdinak ezagutu eta bapo bazkaldu zuten. 33 platerak dastatu eta epaitu zituzten udal korporazioko Jesus Zaballos alkateak eta Lourdes Acevedok (PSE-EE), Pablo Barriok (EH Bildu) eta Arkaitz Nayak (Lasarte-Oriak Ahal Du).

Martxoaren 8rako kartel lehiaketa martxan da

Martxoaren 8ko egitaraua iragartzeko kartel lehiaketa abiatu du udalak. 12 eta 17 urte bitarteko edonork parte hartu ahal du honetan.

Lehiaketan aurkezteko baldintzei dagokionez, kartel proposamenak jatorrizkoak izango dira eta beste lehiaketatan saritu gabeak. Baldin eta kartel

guztia edo haren zati bat osatzen duten irudien jabetza intelektual egilearen esku ez badago, kartela ezingo da aurkeztu.

Kartelak formatu digitalean nahiz formatu fisikoa aurkeztu ahal du dira eta izenburu batekin identifikatu beharko dira. Kartel guztiek "Martxoak 8 de Marzo, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Día Internacional de las Mujeres" goiburua eraman beharko dute baina kartela lantzeko teknika librea da.

Euskal Inauteri berrituak otsailaren 18an

Egun osoko egitaraua prestatu dute herriko eragile ezberdinek Ttakunek sustatuta. Goizean kalejiraz gozatu ahak izango da eta arratsaldean zubietarrekin egingo dira dantza saioak.

Maidar Azurmendi

Euskal Inauteriak berrituta datoz. Iaz Ttakunek herriko beste eragileekin batera sustatuta, Euskal Inauterien festa beste modu batera ospatu zuen. Naiara Mujika Ttakuneko kultura dinamizatzaileak azaldu moduan "bada urte bete Euskal Inauterien birformulazioaren lanketan dihardugula. Herrian urteetan ospatu den inauteri tradizional hau gainbeheran zetorren eta berreraikitze beharra ikusi zen herritar eta eragile ezberdinek osatzen dugun lan taldetik". Tradizioan oinarritutako inauteriak eguneratzeko ahalegina egin da.

Festa "indartu nahian eta tradizioari eutsiaz, Euskal Inauteriak, Lasarte-Oriako inauterien etorreraren adierazle izatea hartu zen abiapuntutzat". Era beran, "hartzaren esnatzeak iragartzen du eguzkia indartu eta eguna luzatzen hasten den sasoa badatorrela".

Bestalde, Euskal Inauterien berpizte honek badu beste arrazoi bat. Izan ere, "inauteriek bere eboluzioa izan dute herrian. Udalaren eta elkarte eta eragileen lan onari esker, inauteri arrunten larunbata asko indartu da egun osoko eta gaueko ekitaldi nagusi bihurtuz. Horrek eragin dio igandeko planteamenduari bai parte-hartzaile kopuruari dagokionez, hauen adinean, eta baita, jaia ospatzeko moduan ere" azpimarratu du Mujikak.

Aipatutako egoerari soluzioa eman nahi dio planteamendu berriak, "lehenengo aldaketa datarena da. Inauterien aurrekari bezala planteatzen dugunez, inauteri asteburuko igandean ospatu beharrean, aurreko larunbatean izango da, kasu honetan otsailaren 18an. Era berean, egitaraua indartu eta pertsonaia mitologiko desberdinen parte hartzea eta antzezpena areagotzeko asmoa



Euskal Inauterien antolatzaile taldea. TXINTXARRI

dugu". Denborarekin, herriko eragile gehiagoren inplikazioa lortzeko erronka dutela esan du Mujikak.

Otsailaren 18rako, egun osoko egitaraua prestatu dute. 11:00tatik 13:00tara herriko hainbat elkarteetatik "Puska bila joango gara kale jiran eta kantuan". Ibilbidea izango da Sagardotegi kalea: Jalgi, Kale Nagusia: Arrieskalleta, Andatza plaza: Xirimiri elkarte, Hipodromo etorbidea Pablo Mutiozabal Kalea, Iñigo de Loiola Kalea: Ttakunenea, Geltoki kale eta Sagardotegi kalea: Intza elkarte.

"Elkarte bakoitzean ezarria frexkatzeaz gain mokadutxoaz goxatzeko aukera izango da".

Arratsaldeko egitarauari dagokionez, Zubietarrekin elkarlanean ariko dira, Zubietako plazan hasiko da ekitaldia 16:00etan. Jarraian, Kalejiran abiatuko dira Hipodromoko zubira iritsi arte.

Bertan, Lasarte-Oriako herritarrek Zubietarrekin dantza eskainiko diete harrera egiteko. Hori 16:30ean izango da. Gonbidapen dantza ostean, Zubietarrekin beren erantzuna eskeiniko diete herritarrei eta

honekin amaitzeko senidetze dantza egingo dute biek. "Behin senidetzea gauzatuta, herrian zehar kalejiran abiatuko gara". Hipodromo etorbideetik Tajamarreko biribilgunera, hortik Kale Nagusira eta Arkupeko biribilguneraino joango dira dantzan eta Okendo plazan bukatu.

Okendon, 18:30ean, erromeriari ekingo zaio eta bukatzean suaren ekitaldi berritua gauzatuko da. "Gerria astindu ondoren, txokolada egingo da".

Afari Literarioa

Eguneko egitaraua borobiltzeko ekimenarekin bat egin dute herriko irakurle txokoko lagunek. Horrela izanda, egitarauaren baitan txertatu nahi izan dute eurek antolatutako bertso afari literarioa. Hau 21:30ean izango da Xirimiri elkartean.

Eider Rodriguez idazlea gai jartzaile lanetan ariko da eta bertsoan Uxue Alberdi, Maialen Lujanbio eta Ane Labaka izango dira.

Honetan parte hartzeko txartelak aurrez erosi beharko dira Artizar, Ilargi edota Furia Beltza tabernetan 20 eurotan.

Gazteen laneratzea errazteko ekimena

Buruntza-Beterrin Hazilan egitasmoa gauzatu ahal izango da

Txintxarri

Garapen Garapen Agentzien Euskal Elkartek, proiektuko kide diren hogeitaz garapen agentziekin batera, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta Europako Gizarte Funtzarekin elkarlanean, Hazilan laneratze-proiektua jarri du martxan 2016-2021 aldira. Langabezia-egoeran dauden 20 urtetik 35 urtera bitarteko gazte kualifikatuak laneratzeko proiektua da. Kolektibo horrek, prestakuntza-maila handia badu ere, zailtasun handiak ditu lan-merkatuan sartzeko, bere lanbide-profilari lotutako esperientziarik ez duelako batetik, eta enpresek eskatutako zeharkako kompetentzia eta gaitasunen jabe ez delako bestetik. Hazilan proiektuari esker, garapen-agentziek etorkizuneko proiektuak dituzten enpresak zein diren jakingo dute, eta enplegu bat lortzeko behar dituzten baliabideak jarriko dituzte gazteen eskura, haien gaitasunak indartuz eta kudeatzen lagunduz.

Proiektua zenbait baliabidetan oinarritzen da. Lehen fase batean, pertsonen aktibazioa bilatzen da, eta jarraian, proiektuaren

arabera, ikasketa espezializatuak egiten dira, praktikak gauzatzen dira, edo enpresa-proiektuetan parte hartzen da.

Lanekin: enpresan prestakuntza eskaintzen da lanpostu jakin bat betetzeko, eta enpresako irakasle batek bere gain hartzen du irakasteko eta ikasitakoa ikuskatzeko ardura. Prestakuntzak 300 ordu inguru iraungo du.

Ondoren, praktikak egiteko hiru hilabetetik sei hilabetera bitarteko egonaldiak gauzatu behar dira enpresetan, lanpostua eta lanbide-profila kontuan hartuta. Enpresak gidatzen du prozesu osoa, eta Hazilan proiektuko teknikari batek egiten du jarraipena.

Talentu Ihesak lanbide-gaitasuna indartzen du enpresa-proiektuetan parte hartzeko aukera emanez. Hautatutako pertsonak prestakuntza jasoko dute proiektuan sartu aurretik. Programan parte hartu nahi duten enpresa edo gazteek www.hazilan.eus lor dezakete informazio. Baita Andoaingo udalean, 943.304 221 zenbakian, hazilan@andoain.eus helbidera idatzita edota bertaratuz.



UDAL MUSIKA ESKOLA

Herriko piano joleak Andoainen

Uhunka pianojole gazte eta familia elkartu ziren asteburuan Andoaingo Piano Jaialdian. Udal Musika Eskolako 15 ikasle han izan ziren eta dominak eta diplomak jaso zituzten ordainean. "Musikariak erronka bikoitza izan ohi du hauetan, norberaren maila gainditzea batetik eta jendaurrean aritzearena bestetik".



SOS Arrazakeria erakundeko kidea da Mikel Mazkieran herritarra. TXINTXARRI

"Errefuxiatuek eskubide bat dutela ahaztu egin dugu"

MIKEL MAZKIARAN SOS ARRAZAKERIA TALDEKO KIDEA

1993. urtean sortu zen SOS Arrazakeria, erakunde gisa. Diskurtso baten inguruko sentsibilizazioan eta salaketaren arloetan oinarritzen da erakundearen lana.

Maddi Noriega

1993. urtean sortu zen formalki SOS Arrazakeria erakunde gisa. Lehenengoz, Frantzia eratu zen, baina Europa mailan ere badira lanketa berdina egiten duten erakundeak. Orduaz geroztik, Giza Eskubideak urratzen dituzten edozein jarrera arrazistaren aurka ari dira lanean; pertsonen eskubideen alde borrokan. Jarrera arrazistak ekidin eta elkarbizitza baten aldeko lanketa horretan dihardu Mikel Mazkieranek.

Gaur egun trataera berdintsua egiten bazaie ere, immigrante izatea edo errefuxiatu izatea ez dira gauza bera. Badago ezberdintasun bat immigrante eta errefuxiatuen artean. Immigrante bat bizi-proiektu bat hartu duen pertsona da. Proiektu hori herrialde batetik beste batera aldatzen da, hainbat arrazoi medio; arazo ekonomikoengatik, familia arazoengatik, etab.

Errefuxiatu bat ordea, bere herrialdetik ihesi datorren

pertsona bat da; jatorrizko herrialdean gerran daudelako egiten du ihes errefuxiatuak. Hauek, Nazioarteko Hitzarmen baten bitartez eskubide bat dute beste herrialde batetara sartzeko, eta estatuak behartuta daude horiek hartzera. Ezberdintasun hori funtsezkoa da. Ezin dira maila berean jarri immigranteak eta errefuxiatuak. Gaur egun, erakundeek, politikoez, hedabideek bertan behera utzi dute errefuxiatua eskubide bat bezala

eta immigranteentzako eta errefuxiatuentzako trataera berdina egiten dute.

Behartuta badaude estatuak errefuxiatuak hartzera, zergatik itxi zaizkie ateak?

Hutsik gelditu delako errefuxiatuen gaia eskubide bat bezala. Inork ez duelako hitz egiten errefuxiatuek eskubide bat dutela. Eta arazoa ez da humanitarioa, hau da, ondo dago 'Ongi etorri errefuxiatuak' kanpaina egitea, baina ez da nahikoa ongi etorria, baizik eta eskubide bat dutela onartu behar da. Ez da humanismo kontua, Giza Eskubide bat da.

Zein egoeratan aurkitzen dira berezko bizilekua utzi eta gureratzen diren pertsonak?

Espainiar Estatutik etorri edo atzeritik etorri tratamendu berdina egiten zaie, baina ezberdintasun handi bat dago; Atzerriartasun Legea eta hau, atzeritik datozenen soilik aplikatzen zaie. Beraz, atzeritik datorrenak izango duen lehenengo arazoa hori da. Lege horrek, ze baldintzatan etorri behar duen esaten dio, zer egin beharko duen hemen lana egin eta erresidentzia baimen bat lortzeko...

Horregatik, etorkin asko irregulartasun egoeran aurkitzen dira, eta irregulartasun egoera horretan egoteak ondorioak ekartzen dizkie; ezin dute formalki lanik egin, kanporatze espediente bat, eta beste hainbat arrazoi. Oso gaizki pasatzen dute eta normalean, beren bizitza hobetzeko etortzen dira. Denetarik dago, kasuz kasu begiratu beharko da guregana etortzera bultzatu dituen arrazoiak zein diren jakiteko, baina normalean, gehienak, bizitza hobe baten bila etortzen dira. Lanik ez dagoen herrialdeetatik datoz, etorkizun beltza duten herrialdeetatik aukera berri baten bila. Normalean, gurean bizi dugun inmigrazioa inmigrazio ekonomikoa da.

Kuriosoa da ordea, azken urte luze hauetan bizi dugun egoera ekonomiko zaila kontuan hartuta etorkinak gureratzen diren.

Krisi-ekonomikoa dela eta azken urteetan ikusten ari gara gureratzen etorritako etorkin ugari jatorrizko herrialdera bueltatzen ari direla. Bi motako itzulerak ematen ari dira; lehenik, itxaropenez beterik bizitza berri bati ekiteko aukerarik ikusi ez, eta bueltatzea erabakitzen dutenak; eta nazionalitatealortuta egonkortasun bat eskuratu eta

beren lurraldera bueltzen direnak, baina etorkizunean gureratzen bueltatu daitezkeela ziurtatzen dutenak bestetik.

Gizartean nahiko zabalduta daude immigranteen inguruko uste faltsuak. Non dute erroa horiek?

Ez dakit, denetik dago horien atzean. Alde batetik, gaur egun nik uste dut azpimarratu behar dela gizartea nahiko haserre dagoela krisi ekonomikoarekin. Ezinegon bat sortzen die egoerak herritarrei eta min hori bideratzeko modu bat izan liteke. Politikoen aurkako jarrera har dezake herriak, baino normalean ahulenaren aurka bideratzen da min hori. Eta zeintzuk dira ahulenak? Immigranteak. Aurreiritziek ere eragin zuzena dute guzti honetan. Denok dauzkagu barneratuta estereotipoak eta batzuetan arazo arrazista bihurtzeraino eramaten gaituzte.

Europar Batasunaren erantzun ezaren aurrean, orain arte inoiz ikusi ez diren elkartasun sare, eta taldeak sortzen ari dira.

Orain dela urtebete, iraila urri aldera, errefuxiatuak etortzen hasi zirenean, Aylan umearen kasua argitara atera zenean, olatu handi bat sortu zen. Baina olatu hori, gainerako olatu guztiak bezala, pasa egin zen, eta gaur egun ez dut ikusten gizartea oso aktibatua errefuxiatuen gaiarekin. Aktibatu beharko dela? Ba bai, baina gero eta zailago ikusten dut. Transmittitzen ari garen mezua, justu aurkakoa da. Gaur egun errefuxiatuak Islamismoarekin, atentatuekin ari dira lotzen, eta Totum Revolutum bat sortzen ari da horren guztiaren inguruan. Guzti horrek ez du elkartasun jarrera bat izatera laguntzen, eta esan bezala, ahaztu egin dugu errefuxiatuek eskubide bat dutela. **Ekintza xenofoboek ordea, ez dute etenik. Iragan astean, Donald Trumpek zazpi herrialde musulmanetako herritarrek AEBetan sartzeko debekuak izugarrizko liskarrak eragin ditu.** Bai! Astakeria izugarria! Donald Trump izugarrizko astakeriak egiten ari da, bai noski, baina beste herrialde batzuek ere jarrera antzekoak izan dituzte gai honekin. Gogora dezagun Hungariak zein erreferendum egin zuen, eta ez dezagun ahaztu ezta ere hegoaldeko mugan gertatzen ari dena. Jarrera horiek salatu behar dira.

(Elkarriketa osoa txintxarri.eus)



Pertsonen ongizatea bermatzeko ari da lanean Villa Mirentxun Gizarte Zerbitzuetako lan taldea. TXINTXARRI

Jatorria alde batera utzita herritarrekin lanean

Behar izan baten aurrean, babeserako leku da Lasarte-Oriako Villa Mirentxu eraikina. Azalaren koloreaz harago, pertsonen ongizatea bermatzeko lanean dihardute Gizarte Zerbitzuetako langileek; 'herritarrekin egiten dugu lan, pertsonekin'.

Pertsonen jatorria ez da Villa Mirentxun laguntza eskatzeko baldintza, ez muga. Izan lasarte-oriatarra, euskal herritarra, espainiarra edo atzerritarra, ateak zabalik ditu eraikinak; pertsonekin egiten dute lan. 'Herritarra izan ala ez, bat gehiago bezala hartzen ditugu guregana laguntza eske etortzen

diren pertsona guztiak'. Horrela adierazten dute Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak eta Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzuetako teknikariak. Izan bertakoak, nahiz atzerritarrak, Lasarte-Oriako gizarte zerbitzuetatik ez dute bereizketarik egiten; 'lanketa berdina da guztientzat. Egia da,

atzerritarrak zailtasun gehiago izan ohi dituztela. Besteak beste, senitartekorik gabe, hizkuntzaren ezagutzarik gabe iristen dira bizileku berrira, eta berezko baliabide gutxiago izaten dituzte. Egoera horien aurrean, babesa eta laguntza ematea da gure zeregina, eta horretan ari gara lanean'.

Beharrianen arabeko lanketa
Pertsonen ongizatea bermatzeko egin beharreko lanketak beharrianen arabekoak behar dute izan. Gauzak horrela, esparru ezberdinetan banatzen da Gizarte Zerbitzuen lana.

Beste hainbat esparruren artean, bazterketa egoeran aurkitzen diren pertsonentzako bideratutako prozesu bat dute martxan Villa Mirentxun. Honetan, bizitzeko arazo ekonomikoak eta etxebizitza lortzeko arazoak dituzten pertsoneri ematen zaie laguntza.

Arriskuan dauden adin txikikoei bideratutako bigarren arlo bat ere badute. Bertan, adin txikikoekin egon daitezkeen arazoak bideratzen dituzte; egoeraren diagnosi bat egin eta familiarteko esku hartze baten bidez jartzen dute martxan prozesua.

Desgaitasun eta mendekotasun egoera bizi duten pertsoneri zuzendutako beste arlo bat ere badute herriko gizarte zerbitzuek. Mendekotasun edo desgaitasun egoera batean aurkitzen diren pertsoneri zuzendutako esparrua da hirugarren hau.

Azkenik, martxan jarri berri duten emakumea babesteko lan lerro bat ere badute. Honetan, emakumeek jasan ditzaketen indarkeria arazoak eta urruntze aginduen kasuak lantzen dituzte, besteak beste.

Aurkeztan den arazoaren arabera, mota bateko zein besteko

laguntza eskainiko zaie Villa Mirentxura joaten diren pertsoneri, ez laguntza eskatzen duen pertsonaren azalaren kolorearen arabera.


Lanketa guzti honetan, legeak onartzen duen guztia hartzen dute euren gain Gizarte Zerbitzuek. Horrela adierazten du Lourdes Acevedo zinegotziak; 'legeak onartzen digunera arte, gure esku dagoen guztia egiten saiatzen gara, baina askotan, oztopo ugari izaten ditugu lanketa egiterako unean'.

Atzerritik etorritako pertsona gehienak, arazo ekonomiko onduz banatutako senideak direla ere nabarmendu nahi izan du Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, baina egoeraren arabera aztertu behar da kasu bakoitza.

Orain errefuxiatu familia bi hartzeko prozesua martxan jarri berri su Udalak. Hauei babesa emateko lanean ere ari dira dagoeneko.

"LEGEAK ONARTZEN DUEN GUZTIA BETETZEN SAIATZEN GARA, BAINA ASKOTAN OZTOPO HORREKIN EGITEN DUGU TOPO; BEHAR BAINO GEHIAGO MUGATZEN GAITUZTE"

LASARTE-ORIAKO BIZTANLEEN JATORRI ANIZTASUNA ZENBAKITAN (2015)



Herritarrak guztira - 18.190	
Euskal Herriko gainerako herrietan jaioak	- %53,5
Espainian jaioak	%24,9
Udalerrian jaioak	%12,9
Amerikan jaioak	%5
Europako herrialdeetan jaioak	%2,1
Afrikan jaioak	%1
Asian jaioak	%0,6

"Migrazioa etxeko kontua da Lasarte-Orian"

ENARA EIZAGIRRE ANITZEN SAREA EKIMENEN ARDURADUNA

Duela lau urte eskas sortu zen Anitzen Sarea Lasarte-Orian. Egun, herritar anitzak biltzen dituen sare bat da, herritarren arteko ezagutza, harremana eta aitortza sustatzea helburu dituen.

Lasarte-Oria Gipuzkoako herri anitzena dela esan daiteke; jatorri desberdinetako herritar gehien biltzen du. Horrek, herriaren izaera baldintzatu du, eta jadanik aniztasun eta aberastasun kulturala Lasarte-Oriaren ezaugarri nagusia da. Gaur egun, Espainiar Estatutik hasi eta Europa, Asia, Afrika eta Ameriketako hainbat herrialde ezberdinetatik gureru etorri diren herritarrek osatzen dute Lasarte-Oria. 40 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira herrian. Biztanle guztiak bat hartzen dituen 'Anitzen Sare' jarri zen martxan 2013an.

Kultur aniztasunari erreparatuta, nolako herria da Lasarte-Oria?

Lasarte-Oria oso herri aberatsa da, migratzailez osatutako herria baita: XX. mende hasieran 1.872 biztanle zituen (1910ean) eta 2015erako 18.190. Hau da, ia-ia hamarkoiztu egin da biztanleria. Hazkunde hori oso lotuta egon da lan-merkatuak erakarririk migrazioarekin.

2015eko datuen arabera, lasarte-oriatarren % 12,9 udalerrian jaiotakoa da (kontuan hartu 1986ra arte Lasarte-Oria ez dela udalerriz izan), Euskal Herrian jaioak % 53,5 dira, eta Euskal Herrikanpo jaioak % 33,6. Euskal Herrikanpo jaiotako lasarte-oriatarren zifra nabarmen altuagoa da Buruntzaldekoko edota Gipuzkoako baino (Buruntzaldean % 27 da eta Gipuzkoan % 25). Euskal Herrikanpo jaiotako herritarren jatorriak honakoak dira: Espainiako beste lekuak % 24,9, gainontzeko Europa % 2,1, Amerika % 5, Afrika % 1 eta Asia % 0,6.

70-80. hamarkadan migrazioari dagokionean, lehen olatu handia izan zen Lasarte-Orian.

Lasarte-Oriako egungo biztanleriaren laurdena Espainiako herrialde desberdinetatik etorritakoa da; lehenago, herritarren heren bat baino gehiago ziren. Horietatik



Herriko jatorri ezberdinetako herritarrek bat hartzen ditu Anitzen Sareak. TXINTXARRI

asko 1950-1980 hamarkaden artean iritsi ziren, orduko industrializazio handiak eta lan-aukerek erakarrita. Horren erakusle da espainiar jatorriko herritarren adina: izan ere, espainiar jatorriko herritar askok eta askok 65 urtetik gora dituzte. Konparatzeko, migratzaile berriek 33 eta 36 urte bitarte dituzte batez beste eta udalerria gaztetzen dute.

Espainiako herrialdeetan jaiotako 4.536 lasarte-oriatar zeuden 2015ean. Horien artean, leku jakin batzuetatik etorritakoen kopurua nabarmen da: adibidez, Caceresetik iritsitako 819 lasarte-oriatar zeuden, Salamancako 707 edota Palentziako 217.

Hura izan zen Lasarte-Oriak izandako migrazio handienetako bat. Aurrez, XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera bitartean izan zen beste hazkunde demografiko handi bat, Orian

Brunet ehun lantegia sortzearekin lotua: 1860tik 1910era biztanleria 583tik 1.872 izatera pasa zen. Hau da, 50 urtean biztanleria hirukoiztu baino gehiago egin zen (% 374,4 hazi zen). XX. mende Erdiko migrazioarekin, 1960tik 1976 urtera bitarte izan zuen aurrekoa baino hazkunde handiagoa bizi izan zuen herriak: 16 urtean laukoiztu baino gehiago egin zen, 3.944 biztanletik 17.271ra (% 437,9 hazi zen).

Ordutik aurrera Lasarte-Oriako biztanleria egonkortu egin da. Migrazioen ikuspegitik, XX. mende amaiera eta XXI. mende hasieran bigarren olatu bat sortu da: Espainiako Estatuan jaiotako herritarrek jasotzen jarraitzen badu ere Lasarte-Oriak, azken urteetan munduko beste tokietatik etorritakoak pisu handia hartzen ari dira. Horrela, gero eta hizkuntza, ohitura, kolore eta janzkera anitzagoz osatutako herria da Lasarte-Oria. **Zergatik erabakitzen dute gure herrira etortzea? Zein dira gureru migratzaileen arrazoiak?**

Lasarte-Oriara beste lekuetatik iritsi diren pertsona guztiei galdetuz gero zein izan ziren beren arrazoiak, oso abaniko zabal

batekin egingo dugu topo ziur. Hala ere, migrazio fenomenoaren joera orokorreari erreparatuta, ezaugarri nagusi batzuk atera ditzakegu. Lasarte-Orian, inguruko beste tokietan bezala, bi migrazio olatu handi izan dira: 50-80 hamarkaden artean Espainiako estatutik etorritakoak eta 90. hamarkadatik aurrera gainerako estatuetatik etorriak. Bi migrazio kasu horietan, lan bila etorritako pertsonak dira nagusi.

Hala adierazten dute migratzaileen ezaugarriak: herrira iritsitako unean gazteak izan dira, lan-merkatuan urte luzez aktibo izateko aukera dutenak. Batez besteko adina oso argigarria da: lasarte-oriatarren batez besteko adina 45 urtekoa da, 2015eko datuen arabera. Munduko beste herrialdeetatik etorritako lasarte-oriatarren batez bestekoa 33 eta 36 urte bitartean dago. Aitzitik, Europako gainerako estatuetatik etorritako herritarrek 62,8 urte dituzte batez beste; zifra horretan nabarmen eragiten dute Espainiako beste lekuetatik 50-80 hamarkada bitartean etorritako herritarrek.

Zein dira migratzaileek integrazio prozesuan erabiltzen dituzten bideak?

Herri batera iritsitakoan bertan integratzeko bide desberdin asko daude: espazioak konpartitzea, antolatutako ekimenetan edo elkarrekin txertatzea, ikastaroak eta formazioa, lana, festak, ekimenak... Hiru zutabe edo arlo funtsezko daude integrazioarako bidean: batetik, beharrian materialak ase behar dira ezinbestean, hau da, bizimodu duin bat izateko behar materialak aseta eduki (janaria, arropak, lana, etxebizitza...); bestetik, arlo kulturala dago, norbanakoari taldean leku bat ematen dioten elementu kultural eta sinbolikoak; azkenik, harremanak daude edo maila sozioafektiboa.

Integrazioak gizarte-prozesu bati egiten dio erreferentzia: denboran zehar gertatzen den prozesu bat da, eta bere baitako agente dira iritsi berriak diren pertsonak, helburuko lurraldean aurrez bizi zirenak, eta leku horretan sustatzen diren politikak.

Espazio publikoan integrazioari dagokionez bultzatu izan diren hiru eredu nagusi errepikatzen dira. Lehenengoa eredu asimilatzailea da, askotan "integrazio" kontzeptuarekin nahasi izan dena. Bigarrena eredu kulturantzuna da: talde eta

kulturen aldaketarik ez da planteatzen, baizik eta berauek mantendu eta sendotzea (kulturen arteko harremanak ez dira sustatzen eta ghettoen eta antzerakoen sorrera ekar dezake). Azkenik, gaur egun oso baloratua den kulturarteko eredua dago: kultura desberdinen eragin eta elkartrukea duena helburu, elkarren errespetua eta aitortza oinarri hartuz. Gaur egun onarpen handiena kulturarteko ereduak duen arren, honek ere ekar ditzake arrisku batzuk. Hain zuzen, aniztasunaren aspektu positiboak azpimarratu eta ikusarazteari ematen bazaio garrantzia, horrek gure gizartearen ematen diren egiturazko bazterkeria egoerak ezkutatzea ekar dezake. Arrisku horretaz kontziente izan eta horren jakitun jokatu behar dugu.

Nola harremanak dira bertakoekin? Zein estrategia erabiltzen dituzte? Nolako da elkarbizitza?

Egunerokotasuneko bizitzan eremu desberdinak ditugu pertsonok. Horien artean, herrian bertan jaiotakoen eta iritsi berrien arteko harremanak nagusiki eskola eta lanaren inguruan sortzen direla ikusi da, eta horien artean gehien eskola eremuan.

Aldiz, harremana nabarmen jaisten da aisialdian eta eremu informalean. Lehen esan bezala, komunitate desberdinen arteko harremana "atomizatua" dela esan daiteke: bakoitzak bere jatorri edo kulturakoekin izan ohi du elkarrekintza gehiena, harremana nahitaez sortzen den espazioez harago.

Lasarte-Oriako herritarrekin azken urteetan egindako hausnarketan nabarmendu da elkarbizitza ona dela... ematen den kasuetan. Behar handienetako giza komunitateen arteko harremana sortzeko espazioak eta zubiak eraikitzea azpimarratu da. Ildo horretatik azken urteetan lasarte-oriatarrek lan nabarmena egiten ari dira: elkarrekin beren jardunean jatorri eta kultura anitzak hartzen dituzte aintzat, komunitate desberdinen elkarlana nabarmen areagotu da, eskoletan presentzia ematen zaio gaiari.

Iritsi berriek egokitzearekin egin behar duten bidean Lasarte-Oriak berezitasun positibo bat du: migrazioa "etxeko kontua" da kasu gehienetan, gertuko esperientzia izan ohi da herritar gehienentzat, eta errazagoa da enpatia izatea migratzaileekin.



**ELENA DERBINA,
UKRAINIA.**

'2007. urtean etorri nintzen Lasarte-Oriara. Oso eroso sentitzen naiz Lasarte-Orian. Jendea zoragarria dela uste dut. Oso pozik bizi naiz herri honetan eta ez dut Ukrainiara bueltatu nahi. Sasoeta-Sasoian Auzo Elkartearekin batera auzoko festak antolatzen parte hartzen dut, eta auzotarrekin batera hainbat ekintza antolatzen ditugu denok elkarrekin ondo pasatzeko. Semearen eta herritarren laguntzarekin, pixkanaka euskara ikasten ari naiz'.



**ASUNCIÓN MARTIN,
EXTREMADURA.**

'Duela 39 urte bizi naiz hemen, 14 urte nituela etorri nintzen. Bizitza osoa daramat bertan eta oso ondo bizi naiz hemen, Lasarte-Orian. Atzeritar ugari bizi garen herri honetan, ez dut inoiz ezberdintasunik ikusi, ezta sentitu ere. Oso eroso bizi izan naiz orain arte herritarrekin batera. Urte asko dira etorri nintzela eta jende asko ezagutzen dut dagoeneko. Horiekin guztiekin dudana harremana ona da'.

'Orain dela sei hilabete etorri nintzen Lasarte-Oriara bizitzera. Oso gustura bizi naiz Lasarte-Orian. Ez nago hain urrun Zaragozako familiarengandik. Hilabetean behin edo bitan joaten naiz beraiek bisitatzen. 2015. urtean hasi nintzen euskara ikasten. Gramatikaz asko ikasi nuen, baina hona etorri nintzenean frustratua sentitu nintzen, ez baintzen hizketarako gai. Orain, horretan trebatzen ari naiz. Oso ongi etorri ona egin didate ingurukoek'.



**ANGELA COLOMA,
ZARAGOZA.**

'2015. urtean etorri nintzen Lasarte-Oriara. Herriko jendea oso jatorra da. Jende asko ezagutzen dut dagoeneko Lasarte-Orian. Tabernara etortzen dira zerbait hartzera, terrazan eseri eta beraiekin hitz egiten dut. Terrazan daudenean, euskaraz hitz egiten didate eta horrela ari naiz hemengo hizkuntza ikasten; bezeroekin. Ez daukat ikastera joateko denborarik. Festa ugari egiten dira herri honetan eta hori asko gustatzen zait; hemengo giroa'.



**SAGID HUSSAIN,
PAKISTAN.**

NOLAKOA DA ZURE BIZI ESPERIENTZIA LASARTE-ORIAN? ZER MODUZ BIZI ZARA GURE HERRIAN?



**MOHAMED EZZAKY,
MAROKO.**

'Hamazazpi urte daramatzat dagoeneko Lasarte-Orian. Hemen bizi daiteke. Etorri nintzenetik ondo bizi naiz. Harrera ona egin didate lasarte-oriatarrek, eta ez dut arazo larririk izan inoiz. Lagunak dauzkut, familia, oso eroso sentitzen naiz herrian. Txarra baino, jende on gehiago aurkitu dut. Noizbait, kalera atera eta keinu itsusiren bat ere egin izan didate, baina %99 jende zoragarriarekin egin dut topo. Euskaraz oso oinarritzko hitzak besterik ez dakizkit'.



**JOSE PÉREZ,
HUELVA.**

'21 urte nituela etorri nintzen Lasarte-Oriara bizitzera. Bizkaian ari nintzen lanean lan egiten nuen enpresarentzat lanpostu bat suertatu zen hemen, Gipuzkoan eta hona etorri nintzen lanera. Zumaburun jarri ginen bizitzera. Bertan hasi nintzen gazteekin lan egiten zuten elkarteekin kolaboratzen, eta auzoko festak antolatzen. Inoiz ez dut bazterketa arazorik sufritu'.

'2009. urteaz geroztik bizi naiz Lasarte-Orian. Nik zorte handia izan dudala uste dut, izan ere, jendeak hona bizitzera etorri nintzenetik oso ondo hartu nau hemen, Euskal Herrian. Oso gustura bizi naiz herri honetan; oso herri alaia da, nire ustez. Jendea ezagutzen dut dagoeneko herrian, lagunak dauzkut eta oso oso gustura sentitzen naiz. Euskara oso oso zaila egiten zait. Lanak ez dit ikasteko denborarik uzten, baina anaiarekin oinarritzko hitzak ikasten ari naiz'.



**MARCELA GONZALEZ,
HONDURAS.**

'2008. urtean etorri nintzen Lasarte-Oriara. Hasiera oso zaila izan zen niretzat. Ez genituen bertako inguruak ezagutzen, ezta bertako inor ere; horrek kezka handia sortu zuen nigan, baina orain, oso gustura bizi naiz nire familiarekin hemen. Harreman ona daukat herriko jendearekin eta gustura bizi naiz herrian. Lanean, inguruan euskara hitz egiten duen jende ugariarekin egiten dut topo egunero, baina nik ez dakit hitz egiten'.



**FLORI COJOCARU
ERRUMANIA.**



**NILSON OLIVARES
TXILE.**

'2008. urtean etorri nintzen Lasarte-Oriara. Askotariko jatorrietako pertsonak ugari bizi gara herrian, eta hori oso positiboa dela uste dut. Hona iritsi nintzenetik, jende jator ugari ezagutu dut, eta gustura bizi naiz Lasarte-Orian, oso bizitza lasaia daramat. Lasarte-Orian bizi naizenez, Sasoeta-Zumaburuko Guraso Elkarteeko kide naiz, eta bertako kide guztiekin batera hainbat ekintza antolatzen ditugu. Euskara ikastea da nire helburuetako bat'.

LOKEko atletak pistako denboraldian murgilduta

Emaitza txukunak lortu zituzten LOKEko atletek pasa den asteburuko absolutu mailako pista estaliko Euskadiko Txapelketan. Datozen astetan hitzordu garrantzitsu gehiago dituzte, eta haiekin izan gara denboraldiko helburuak aztertzeke asmotan.

Martin Vicioso

“Pozik” da LOKEko atletismo ataleko prestatzaile Oscar Goikoetxea asteburuko emaitzekin. Absolutu mailako pista estaliko Euskadiko Txapelketa jokatu zen Donostiako Antonio Elorza belodromoan, eta taldeko zazpi atleta lehiatu ziren.

Goikoetxeak nabarmendu duenez, “denek dituzte harro egoteko arrazoiak”. Emaitzagatik ez bada, markak hobetu dituztelako.

Lau kilogramoko pisu jaurtiketan Maider Rekondok bigarren postua lortu zuen 11,41 metroko markarekin. Oihana Igarritz taldekidea bosgarren izan zen.

60 metro hesien lasterketari dagokionez, Eneritz Busto podiumetik gertu geratu zen. Laugarren denborarik onena markatu zuen: 8:94 segundu. Goikoetxeak azpimarratu du “sekulako maila” zegoela froga honetan. Izan ere, Busto eta bere



LOKEko atletismo ataleko kideen talde argazkia. TXINTXARRI

aurretik geratutako hiruak absolutu mailako Espainiako Txapelketarako txartela lortu dute. Halaber, azpimarratzekoa da lasarteoriarrak baino emaitza hobea lortu zuten hirurak bera baino zaharragoak direla.

Jauzi hirukoitzan LOKEko lau atletek hartu zuten parte. Ane Galardik eskuratu zuen markarik onena, laugarren izan baitzen 10.89 metroko jauziarekin. Naroa Furundarena –seigarren–, Nerea Loyarte –bederatzigarren– eta

Nerea Oscoz –hamargarren– ere lehiatu ziren froga honetan.

Luzeera jauzian Naroa Furundarenak zazpigarren markarik onena egin zuen.

Atletico San Sebastian taldean lehiatzen diren Maria eta Nerea Eugik ere emaitza onak izan zituzten. Nerea 200 metrotako 'B' finalean hirugarren geratu zen, eta Maria 60koan bigarren.

Erronka ugari aurretik

Bihar eta etzi Madrilen egingo den promesa mailako Espainiako Txapelketan lehiatuko da Ane Galardi jauzi hirukoitzeko frogan. Eneritz Bustok, berriz, hilaren 18an Salamancan egingo den absolutu mailakoan hartuko du parte.

Goikoetxea baikor da biek lor ditzaketan emaitzekin. Bustok, adibidez, “Europako Txapelketara sailkatzeke aukerak” dituela nabarmendu du.

Asteburu honetan eta hurrengoan egingo dituzte Gipuzkoako lehiaketak kategoria guztietan, eta bertan izango dira LOKEko atleta gehienak.

“Nork bere buruari jarritako erronkak gainditzea espero dugu” azaldu du Goikoetxeak, nahiz eta denek “kirol emaitza” zehatzik lortzeko helbururik ez duten. “Kirolarekin gozatzea da funtsezkoena, eta hori bilatu nahi dugu lehenik”.

Kadete, jubenil eta junior mailatan marka onak lortzen dituzten atletek Euskadiko

Txapelketarako txartela eskuratuko dute. Hilaren 25ean egingo da Donostiako Antonio Elorza belodromoan. Honekin eta martxoan zehar egingo diren Espainiako Txapelketekin emango diote amaiera pistako denboraldiari.

Erreleboa

Atzetik datozen gaztetxo kopuruarekin “gustora” daude. Aurreko urteetan baino gehiago dituzte. “Emaitzen gaintetik, txikiek atletismoarekin gozatzea eta kirolan barneratzea” da garrantzitsuena, prestatzailearen ustez.

Lasarte-Oriako kirol instalakuntza berriak egiteko proiektuak eragin zuzena du LOKEko atletismo atalarengan. Pista osoa edukitzeak “entrenatzeko orduan lasaitasuna eta onurak” ekarriko lizkioke taldeari, ordutegia moldatzeko malgutasuna irabaziko luketelako, besteak beste. Halaber, Lasarte-Orian atletismo lehiaketa eta saioak hartzeko ateak ireki daitezke.

Pista berrian aldagela, biltokia eta harmailak izatea “egokia” ikusten du Goikoetxeak. Hala ere, ulertzen ditu proiektua aurrera eraman ahal izateko azaldu diren zailtasunak.

ASTEBURU HONETAN ETA HURRENGOAN GIPUZKOAKO TXAPELKETETAN LEHIATUKO DIRA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
KADETEEN OHOREZKO MAILA, Sporting de Herrera - Ostadar SKT Larunbata. 09:30. Herrera, Donostia.
INFANTILEN OHOREZKO MAILA Ostadar SKT - Trintxerpe CD Larunbata. 11:15. Michelin.
ERREGIONALEN 1GO MAILA, KOPA Iluari FK - Texas Lasartearra Larunbata. 19:15. Herrera, Donostia.
Ostadar SKT - Asoleus Larunbata. 17:30. Michelin.
JUBENILEN 1GOA, IGOERA FASEA Ostadar SKT - CD Beti Ona Larunbata. 15:45. Michelin.
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA Ostadar SKT - Mondragon CF Igandea. 10:30. Michelin.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA Kostkas - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Matigoxotegi, Donostia.

SASKIBALOIA
PARTIZIPAZIOKO KADETEAK Easo 02 - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. San Ignacio, Donostia.
ERRENDIMENDUKO KADETEAK Ostadar SKT - Eskoriatza KE Larunbata. 11:00. M.Chourraut kiroldegia
ERRENDIMENDUKO JUNIOR NESKAK Ostadar SKT 'B' - Aitona Askatuak Larunbata. 16:00. Udal Kiroldegia.
ZAST Orio - Ostadar SKT 'A' Igandea. 10:00. Antoniano, Zarautz.
EMAKUMEZKO SENIOR PROBINTZIALA Donosti Dolphins - Ostadar SKT Larunbata. 20:00. Benta Berri, Donostia.
ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA Also - Aita Amari Ostirala. 19:45. Kirolgunea.
Viña del Mar - Urdaneta H.K. Ostirala. 20:45. Kirolgunea.

Txoko - Kattagorri insausti Larunbata. 09:30. Kirolgunea.
Kebab Taberna - Indaux Larunbata. 10:30. Kirolgunea.
Ibaros Latino - Reformas Lagunak Larunbata. 11:30. Kirolgunea.
Trumoi - Izkiña Larunbata. 12:30. Kirolgunea.
GIPUZKOAKO 1GO MAILA CD Mondrate - ISU Leihoak Larunbata. 18:00. Musakola, Arrasate.
3. NAZIONAL MAILA Lagun Onak FS - Ostadar Antonio Aroztegia Larunbata. 18:00. Urreta, Galdakao
IGERIKETA
50 METROKO SARIA Buruntzaldea IKT-ko igerilariak benjamin eta alebinetako 50 metroko sarike finalean arituko dira. Igandea. 10:00etatik aurrera. Bikuña kiroldegia, Legazpi.

ESPAINIAKO TXAPELKETA Leire Martin Euskadiko selekzioarekin lehiatuko da Autonomia arteko txapelketan hainbat kategoriatan Larunbata. 09:30etatik aurrera. Castelló
ATLETISMOA
PISTA ESTALIA, ABSOLUTUAK LOKE-ko atleta absolutuek pista estaliko Gipuzkoako Txapelketan lehiatuko dira. Larunbata eta Igandea. Antonio Elorza belodromoan, Donostia.
PISTA ESTALIA, PROMESA Ane Galardi promesa mailako Espainiako txapelketan hartuko du parte salto hirukoitzan. Igandea. Madril.
ERRUGBIA
SENIORREN EUSKAL LIGA Eibar RT - Babyauto Zarautz Ostirala. 19:30. Unbe, Eibar.

14 URTE AZPIKOAK Gure Etxea Beltzak - Bera Bera RT Larunbata. 10:30. Asti, Zarautz
12 ETA 10 URTE AZPIKOAK Federazioko jardunaldiak Larunbata. 10:30. Michelin.
PILOTA
BINAKAKO PROMOZIO TXAPELKETA Arteaga II/Eratsun - Elordi/Erostarbe Ostirala. 22:00. Urdulizko pilotalekua.
1GO MAILAKO UDABERRI TXAPELKETA Intza KE - Izurun Larunbata. 16:00. Michelin.
EUSKAL HERRIKO KLUBEN LIGA Intza KE - Txukun Lakua Larunbata. 17:00. Michelin.
PADELA
ESKOLA ARTEKO ZIRKUITOA Padelo Klubeko bi bikote lehiatuko dira Larunbat eguerdia. Padel4/EHU, Donostia.



Errendimenduko juniorrak Askatuak taldearen aurkako norgehiagokan. TXINTXARRI

Pausoz pauso, herrian saskibaloia errotuz

Bost urte bete ditu denboraldi honetan Ostadar SKT-ren saskibaloia atalak. Urtez urte talde gehiago ateratzen dituzte, eta Gipuzkoako eta EAEko lehiaketetan maila ona eman dute orain arte. 2016-2017 denboraldiko errepasoa egin dugu arduradun Endika Marrahirekin.

Martin Vicioso

Ibilbide oparoa egin du Ostadar SKTren saskibaloia atalak urte gutxian. Talde bakarrarekin hasi eta, gaur egun, seik osatzen dute sekzioa. Halaber, alebin eta infantilak batzen dituen "Saski eskolak" ume kopurua bikoiztu du azken denboraldian.

Emakumezko bost talde ditu Ostadar SKT-k. Kadete mailan bi, juniorretan beste hainbeste eta, lehenengo aldiz, senior mailan atera dute ekipoa. Ataleko arduradun Endika Marrahiak azaldu duenez, haientzat "garrantzitsua" zen senior kategoriara pasa den belaunaldi horrekin jarraitu ahal izatea.

"Gaztetako fase guztiak arrakastaz igaro dituzte eta klubaren garapenaren mugarri dira", dio Marrahiak. Taldea ateratzeko "zalantzak" izan zituztela aitortu du entrenatzaileak, zazpi jokalarirekin soilik hasi baitziren. Dena den, Donostiatik etorritako jokalaria bati eta juniorrek

emandako laguntzari esker aurrera atera dira.

"Askok ari dira ikasten. Seguru aski mailako talde gazteena gara. Ohituak daude kirol arrakasta finaletan eta sarietan neurtzera. Oraingoan ulertu dute saria bera dela taldea aurrera ateratzea eta astebururo lehiatzea".

Gazteak sendo

Junior mailan Euskal Ligara sailkatu eta mantentzea lortu ostean, erabaki zuten aurten berriro ere Gipuzkoako Errendimendu mailan lehiatzea, taldea bertan hobeto ikusten baitute.

Denboraldi honetan junior mailako bi ekipoak Errendimendu mailan ari dira. "Orain arte Partizipaziozko ligan lehiatzen

AURTEN, LEHEN ALDIZ SENIOR MAILAKO EMAKUMEZKOEN TALDEA ATERA DU OSTADAR SKT-K

zirenak igotzetik gertu geratzen ziren, eta aurten Errendimenduan lehiatzeko aukera dute". Marrahiaren uste, jokalarientzako "saria" da.

Kadete mailan aurkitutako "zailtasuna" nabarmendu du arduradunak. "Aurten maila handia topatu dugu; beste urte batzuetan baino zailagoa da partiduak irabaztea", dio Marrahiak.

Gizonezkoak, hirugarren

Denboraldi txukuna ari dira egiten gizezkoen senior taldeko kideak. Sailkapenean hirugarren dira, hanka eta erdi Bigarren Mailarako igoera fasean dutela.

"Maila oso desberdina duten taldeak" daude, Marrahiaren ustez. Hala ere, igoera lortzea "erronka zaila" dela aitortu du.

Ez dute aurreikusten gizezkoen gazteen talderik ateratzea etorkizun hurbilean. "Posible balitz, aterako genuke, baina momentu honetan emakumezkoen maila denetan taldea ateratzea dugu helburu, hor baitugu eskaera".

Ostadar Antonio Aroztegiak hirutik hiru 2017an

Sailkapenaren zulotik zitzu bizian ari da irteten taldea; 11. postuan dago orain, hamasei punturekin.

Iñigo Gonzalez

Urte aldaketa ezin hobeto etorri zaio Josean Jimenezek zuzentzen duen taldeari: ligako hiru partidu jokatu ditu, eta beste hainbeste irabazi. Azkena, pasa den larunbatean, Otxartabe CDren aurka: urdin-beltzek 5-2 irabazi zuten, partidu oso ona eginda.

Oso orekatua izan zen lehen zatia, baina bizkaitarrak jarri ziren aurretik markagailuan, atsedenaldira iristeko hamar minutu falta zirela.

Bigarren zatia hasi eta berehala banakoa sartu zuen Carlosek. Otxartabek 1-2koa sartu zuen, baina markagailua irauli zuen etxeko taldeak, Carlosen, Petxaren (bi) eta Mauroren golekina.

Sailkapenaren zulotik zitzu bizian ari da irteten Ostadar Antonio Aroztegi: 11. postuan da orain, hamasei punturekin.



Ander Petxarroman baloiarekin. TXINTXARRI

Jardunaldiko beste emaitzak

Gipuzkoako 1go mailako emaitzak: ISU Leihoak 5-6 Hirukide eta Inter 7-3 Cecilia Kebab Lasarte Ostadar. Gipuzkoako jubenil mailako emaitzak: Kafe Bar Buenetxea 4-2 Zarautz, eta Zarautz B 2-7 Lasarte Kafe Bar.

Aizpea Arroyo bigarren 1go amateur fasean, pilotekin

Konpetitzen hasi dira honezkero LOKEren gimnastika erritmiko alorreko kideak. 1go amateur fasea jokatu zuten iragan asteko larunbatean, Bergarako Labegaraieta kiroldegian. Maila oso txukuna erakutsiz estreinatu dira gimnastak aurten.

Aizpea Arroyo seniorrak bikain ekin dio konpetizio aldiari, bigarren postua lortuta, pilotekin,

Senior A kategorian. Garazi Gomez eta Ainara Apezteguia taldekideak ere modalitate eta kategoria berean aritu ziren; 7. eta 11. izan ziren. Guztira 20 gimnastak hartu zuten parte.

Senior B kategorian, bestalde, Alazne Gonzalez gimnastak ordezkatu zuen LOKE. Pilotekin aritu zen baita ere; hamalauk hartu zuten parte guztira, eta herritarra bosgarren izan zen.

Taldekakoan, azkenik, kadeteek eta seniorrek hartu zuten parte. Kadeteek 13. postua lortu zuten; seniorrek berriz, 7.a.

Parekidetasunaren aldeko boxeo masterra bihar kiroldegian

Lasarte-Oriako boxeozaleek aukera ezin hobea dute bihar Maialen Chourraut kiroldegian. Sei borrokaldiz gozatzeko aukera izango dute bertaratutakoek. Horien artean bi, profesional mailako borrokalarientzako.

Aurkezpenean, parte hartuko duten bi boxeolarik –Bioleta Gonzalezek eta Eneritz Borinagak– kirolean emakumeen

eta gizonen arteko parekidetasuna aldarrikatu dute.

20:00etan hasiko den jaialdiak sei borrokaldi izango ditu, emakumezkoenak eta gizezkoenak partekatuz. Bioleta Gonzalez bizkaitarrak profesional mailan debuta egingo du Lasarte-Orian Katerin Quintana valentziarraren aurka. Gaueko beste estelarrean Sebas 'Latigo' Perez oreretarrak borrokatuko du. Halaber, EAEko txapeldun Eneritz Borinaga, Patricia Yubero eta Xabier Burgueño ikusteko aukera izango da



LOKEko judoka juniorrek maila bikaina eman zuten kategoría horretako Euskadiko txapelketan. LOKE JUDO

Domina uzta oparoa Euskadiko txapelketan

LOKEko junior mailako hainbat judoka ederki aritu dira asteburu honetan Gasteizen, kategoría horretako Euskadiko txapelketan. Bi zilar eta bi brontzezko domina ekarri dituzte bertatik bueltan. Otsaileko agenda konpetizioz lepo dauka LOKEk.

Iñigo Gonzalez

Zeresan handia eman zuten LOKEko judoka juniorrek pasa den asteburuan tatami gainean. Gorka Aristegi eta Asier Sagasti prestatzaileek eta sei judokak osatu zuten espedizioa: Ander Garrido, Eneko Eizagirre, Fermin Balda, Talib Vergara, Jon Herrero eta Jesus Curielek. Bikain aritu ziren guztiak, eta lau domina ekarri zituzten bueltan herrira: zilarrezko eta brontzezko bina.

Ander Garridok eta Eneko Eizagirrek kolokatu zituzten zilarrezkoak, txapelketa bikaina osatuz. Fermin Balda eta Talib Vergara ere igo ziren podiumera, brontzezko domina bana irabazi baitzuen bakoitzak. Jon Herrero eta Jesus Curiel, berriz, gertu geratu ziren; bosgarren postua erdietsi zuten biek; brontzeagatik aritzeko borrokaldia galdu zuten.

“Txapelketa bikaina osatu dute denek; borrokaldi ederrak egin dituzte”, nabarmendu du Gorka Aristegi prestatzaileak. “Ez nuke aipatu gabe utzi nahi Asier

Sagastik txapelketan zehar emandako laguntza, txofer eta entrenatzaile lanak egiteagatik eta baita judokei emandako animoengatik ere”, gehitu du.

Junior kategoriako judokak sasoi betean dabilta azkenaldian. Duela bi asteburu Aretxabaletan jokatu tako Gipuzkoako txapelketan ere egurrean aritu ziren: Ander Garrido txapeldun izan zen, azpitxapeldun Jon Herrero eta Talib Vergara, hirugarren Jesus Curiel eta bosgarren Yeray Mendibe eta Haritz Urdangarin.

Infantilak ere tatami gainean

Eskolarteko Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten infantil mailako judokek joan den

**KADETE MAILAKO
JUDOKAK HITZORDU
GARRATZITSUA DUTE
BIHAR: GIPUZKOAKO
TXAPELKETA**

asteburuan. Eurak ere badabilta tatami gainean, ederki gainera: txapeldun izan zen Xabier Morales, bigarren Lucas Morales eta Oier Guisado eta hirugarren Martin Sebastian. Horrez gain, beste lau taldekide ere ederki aritu ziren, maila ona erakutsiz: Santi Mezzena, Ekhi de la Cruz, Oier Bocos eta Julen Fernandez.

Agenda, konpetizioz lepo

Datozen asteetan ere kirol hitzordu ugari edukiko dituzte LOKEko judokek. Bihar, esaterako, kadeteen Gipuzkoako txapelketa eta infantilen eskolarteko jardunaldi bat jokatu dira. Hilaren 17an berriz, kadeteen Europako Kopa Fuengirolan (Malaga); eta, 25ean, junior mailako iparraldeko sektorea Zaragozan. Orain arteko bolada onarekin jarraitzeko asmotan dira kategoría horretako judokak. Beraiez gain, kadeteak eta infantilak ere ariko dira hilabeteko azken asteburu horretan.



BURUNTZALDEA IKT

Gaztetxoenak ederki etxean

Buruntzaldea IKTko igerilari benjamin eta alebinek 50 metroetako sariko sailkapen probak jokatu zituzten larunbatean Maialen Chourraut Udal Kirolegian. Ikasturtean zehar ikasten ari direna erakutsi zuten guraso eta lagunaren aurrean; ez zegoen tokirik harmailetan. Maila oso txukuna hartzen ari direla erakutsi zuten denek.



TXINTXARRI

Ostadar garaile derbian (0-6)

Urdin-beltzek irabazi zuten 1go erregional mailako Kopako derbia, 0-6. Orekatua izan zen lehenengo zatia, nahiz eta Texas bat gutxiagorekin geratu 30. minutuan. Aukera garbirik ez zen ikusi apenas Michelinen.

Bigarren zatia hasi eta berehala sartu zuen 0-1eko Lopezek. Partidua amaitu bitartean bost gehiago sartu zituen Ostadarrek.

Garaipen baliotsua Intza KE-ko Artetxe eta Elolarentzat

Lehenengo puntua lortu zuten Intza KEko pilotariak Euskal Herriko Klubien Ligan. Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak osatutako bikoteak Atarrabiako Paz Ziganda menpean hartu zuten, 22-10. Bihar, Gasteizko Txukun Lakua taldea hartuko dute Michelinen, arratsaldeko 16:00tatik aurrera. Intza KE-ko

lehenengo mailako Udaberri Txapelketako partidua jokatu da aurretik.

Axier Arteagak, berriz, sendo jarraitzen du Binakako Promozio Txapelketan. Ugalde eta Martinez izan zituzten aurkari larunbatean Idiazabalgo Igarondo pilotalekuan. 22 eta 13ko emaitzarekin, bigarren postuan da Erasunekin batera.

Gaur Elordi eta Erostarbe izango dituzte aurkari Urdulizen egingo duten jaialdian. Garaipena lortuz gero, finalaurrekoetatik oso gertu kokatuko lirakeke.

ZORION AGURRAK



Nora
Zorionak printzesa, Mikel eta Mariaren gurasoen partez! Zortzi muxu handi!



Ane Miren
Zorionak zure 11. urtebetetzean. Muxu pila familiaren partez!!



Oihana
Zorionak sorgina zure lehen urtebetetzean, aita, ama eta Lorearen partez. Asko maite zaitugu!!



Aiara
Zorionak printzesa zure 5. urtebetetzean. Besarkada handi bat familiaren partetik.



Aingeru eta Naiara
Zorionak bikote! Gozatu egunaz eta muxu erraldoi bat familia osoaren partez! Mua!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurrak eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean..

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

SUDOKUA

2		5		8	6	9		4
4			5		3		6	
	7				4			5
9		1		4		5	2	8
3		7		5				1
		2	6		8		3	
7			8	6	5			3
8	5		7	3		4	1	
	2	3		9	1	8	5	

GUTUNAK

Parekotasunaren bidean kirolean

VIOLETA GONZALEZ ETA ENERITZ BOLINAGA BOXEOLARIAK

Egia da, gaur egun, kirolean oraindik ez dagoela berdintasunik, beraz, egunez egun, gizon eta emakumeek, kirolariek, administrazio publikoek, entitateek, elkarte eta klubek, mundu mailan edozein adinetako emakumeen arteko kirolak sustatzen jarraitu behar dugu.

Eta ez gara soilik kirolari dagokionaz zentratu behar,

ezta partaideetan edo kirol eremuetako erabiltzaileen zifretan, baizik eta emakumearen partaidetza kirol instituzio eta entitateetako kudeaketetan eta zuzendaritzetan. Baita, kirolaren praktika eta aktibitate fisikoen arteko adiskidetasuna eremu familiar edo profesionalean eta emakume kirolariaren ikuspena komunikabideetan lantzea funtsezkoa da.

Beraz, parekotasunerantz egin beharreko bidea kirol munduan kolokan dagoen gaia denez, goztiok gonbidatu nahi zaituztegu

2017 Lasarte-Oria Master Boxeoa ekitaldira, non gure hondar-ale txikia ipiniko dugu guzti hau handitzen hasteko.

Gora Emakume Kirolariak!!!

OHARRAK

Euskal Inauteriak

Dantzak ikasteko entsegu irekia egingo da asteartean Sasoetako gimnasioan 20:00etan. Ohiko muxikoen tartean izango da Ttakunek antolatutako entsegu saio hau. Honakoa irekia dela gogoratzen dute sustatzaileek eta jendea parte hartzera deitzen dute otsailaren 18an kalejira jendetsua osatzeko.

Txantxo Jantzia

Euskal Inauterietarako jantzia prestatzeko ikastaroa egingo da bihar 11:00etan Anbulatorioko 2. solairuko gelan. Txantxo jantzia egiteko, lastozko txanoa eraman beharko dute parte hartzaileek soilik. Ikastaroa familiei zuzenduta dago.

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA

101. SALDU

Herri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazio gehiago eskuratzeko deitu 663 515 265 zenbakira.

103. ERRENTAN EMAN

Zarautzen apartamentua alokatzen da. Garajea dauka. Luzerako alokairuan pentsatzen da. Informazio gehiagorako 648 614 769.

Bi plazako garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalen. 686 674 552.

104. ERRENTAN HARTU

Alokairua merke duen pisu bila ari naiz, ahal balitz Lasarte-Orian. 637384110

2. LANA

202. ESKAERA

Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak, pertsona

adinduak edo haurrak zaintzeko. 643 620 254, Yaline.

Emakumea eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko gauez. 619 803 199.

Emakumea eskaintzen da umeak edo pertsona adinduak zaintzeko. 675 830 206. Johana.

Haur Hezkuntzan titulua duen neska eskaintzen da

umeak zaintzeko. 695 753 292. Maria

Emakume arduratsua eskaintzen da lanaldi erdiz helduak zaintzeko. Arreta Soziosanitarioan tituluduna. 673 381 470

Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko, pertsona helduak zaintzeko, gauez lan egin edo haurrak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egiteko prest, baita

sukalde laguntzaile lanetan aritzeko ere. Gloria 648 198 456

Emakumea eskaintzen da gauetan pertsona helduak zaintzeko. Vilma. 634278198

402. EMAN

Euskara edo ingelesa irakasten dut. Ekonomikoa. 600 766 068

403. JASO

Euskara klaseak jaso nahiko nituzke irakasle partikularrekin. Brenda. 693 299 302

JAIOTAKOAK

Eder Mayoz Silva. Urtarrilaren 28an.

HILDAKOAK

Juan Mari Izagirre Zuloaga. Otsailaren 8an, 63 urte.
Tomas Gabirondo Amundarain. Otsailaren 7an, 69 urte.

ESKELAK

OROIGARRIA

Juan Mari Izagirre Zuloaga

'Fleki'

2017ko otsailaren 8an hil zen, 63 urte zituela.

Zenbat amets,

zenbat pauso elkarrekin horiek lortze bidean,

esker onez harro gaude ondoan izan zaitugulako!

Azken agurra gaur, ostirala, 20:30etan Eliza ondoko oinezko gunean.

Lasarte-Oriako Ezker Abertzalea.

ESKELAK JARTZEKO:

Txintxarri erredakzioan

943 37 14 48

► Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€

► Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €

► Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 10

URBISTONDO

Larunbata, 11

GANDARIAS-URIBE

Igandea, 12

GANDARIAS-URIBE

Astelehena, 13

ACHA-ORBEA

Astearte, 14

URBISTONDO

Asteazkena, 15

GANDARIAS-URIBE

Osteguna, 16

ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elcano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629

EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184

KIROLDEGIA: 943 376 182

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181

GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179

KIUB: 943 361 605

UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621

MUNTERRI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960

DYA: 943 464 622

GURUTZE GORRIA: 943 363 953

UDALTZAINAK: 943 362 442

ERTZAINZA: 943 288 888

SOS DEIAK: 112

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 10

ANDOAIN Dantza ikuskizuna
Logela Multimedia-Circle of Trust bikotearen ekoizpen berria da 'Nagare'. Dantza eta ikus-entzunezko teknologiak bat eginez datoz lan sakon eta heldua aurkeztera. Logela Multimedia ikusnografi berritzaile batekin txundituko du eta Circle of Trust taldeko dantzariak ohikoa duten gorputz eta forma fisikoa gehituko dute. Sarrera 10 euro.
Bastero, 21:30ean.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Ikastaroa
Euskal Inauterietako jantzia (Txantxo jantzia) prestatzeko ikastaroa irekia guraso eta haurrentzat.
Anbulatorioko 2. solairua, 11:00etik.



LASARTE-ORIA 'Kaput'
5 urtetik gorako haurrentzako antzezlan. Sarrera 3,80 euro.
Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00etan.

HERNANI Azoka
2.eskuko azoka, kalez kale kantari eta erromeria.
Atsegindegi plaza, 11:00etan.

ASTIGARRAGA Kaldereroak
Ergobiatik irten eta kanpamendua.
Joseba Barandiaran plaza, 20:00etatik.

IGANDEA 12

ANDOAIN Antzerkia
'Marikixkur eta hiru hartzak' haurrentzako antzezlan eskainiko du Glu Glu produkzioak. Sarrera 4 euro.
Bastero, 17:00etan.



LASARTE-ORIA Antzerkia.
'Kaput' haurrentzako antzerkiak gozatu ahal izango da. Bi pailazok, auto batekin bizi dituzten abenturak antzeztuko dituzte, mutua den obra horretan. Jimena Cavallettiren gidaritzapean antzeztuko dute Gorka Gansok eta Txefo Rodriguezek. *Larunbata 11, Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00ean.*

ASTELEHENA 13

LASARTE-ORIA Itsaspeko Zine Zikloa
Guillaume Vincent egilearen "La Conquete des oceans" filamaren lehen zatia izango da bigarren saioari hasiera emango dion ikus-entzunezkoa. Honen ostean, Josep Castelviren "El último viaje del amiral de Kersant" filma izango da ikusgai. Bigarren saioarekin amaitzeko, José Carlos Randoren lau minutuko "Los secretos de la noche" ikusi ahal izango dute ikusleek. Doan.
Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

USURBIL Bilera
Santaixabeletako batzordea.
Potxoenea, 18:00etan.

ASTEARTEA 14

LASARTE-ORIA Dantza
Muxikoen saio irekia Euskal Inauterietako dantzak ikasteko.
Sasoetako gimnasioa, 20:00etan.



HERNANI Literatur solasaldia
Eduardo Padura idazle kubatarren 'Adiós, Hemmingway' lana aztertuko dute parte hartzaileek, ohi bezala Amaia Garcíaren gidaritzapean.
Udal liburutegia, 19:30ean.

ASTIGARRAGA Ikastaroa
Jakin+ egitasmoa saio berria izango da. Esperientziak trukatu, trebatu, pertsonen bizi-kalitatea hobetu eta genero ikuspegia lantzeko egitasmoaren baitan, otsailean margolaritzan eta zinematografian nabarmendu diren pertsonen biografiak eta lanak aztertzen dira lau saio ezberdinetan.
Kultur etxea, 16:00etan.

OSTEGUNA 16

HERNANI Ikuskizuna
Azken asteetan ikusgai izan den 'Hysteron' Nagore Lejarretaren erakusketari amaiera emateko saio berezia antolatu dute. Danele Sarriugartek eta Gorka Setienek testu ezberdinak errezitatuko dituzte; Txaro Unzillak dantza egingo du eta Mariano Hurtadok, Aida Torresek eta Beñat Iturriozek, musika jarriko dute.
Biteri, 20:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Hasta el último hombre
Ostirala: 22:00.

Blinky bill, el koala
Igandea: 17:00.

Silencio
Igandea: 19:30.

URNIETA

LEKAI

Zipi y Zape
Igandea: 16:00.

ANDOAIN

BASTERO

Toni Erdman
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30, 22:00.

USURBIL

URBIL

Ballerina
Ostirala: 16:00, 18:00.
Larunbata: 16:00, 18:00, 19:00.
Igandea: 16:00, 17:00, 18:00.

Batman: La lego película
Ostirala: 18:15, 20:30, (eus.) 16:00.
Larunbata: 17:00, 18:15, 19:15.

(eus.) 16:00.
Igandea: 17:00, 18:15, 19:15.
(eus.) 16:00.

Cincuenta sombras más oscuras
Ostirala: 17:00, 18:00, 19:30, 20:25, 21:15, 22:00, 22:50, 00:00, 00:30.
Larunbata: 17:00,

18:00, 19:30, 20:25, 21:15, 22:00, 2:50, 00:00, 00:30.
Igandea: 17:00, 18:00, 19:30, 0:25, 21:15, 22:00, 2:50.

Contratiempo
Ostirala: 20:00.
Larunbata: 20:00.
Igandea: 20:00.

Figuras ocultas
Ostirala: 22:15, 00:45
Larunbata: 22:15, 00:45.
Igandea: 22:15.

La La Land
Ostirala: 16:30, 19:15, 22:00.
Larunbata: 19:15, 22:00.
Igandea: 19:15, 22:00.

Lion
Ostirala: 21:30, 00:15.
Larunbata: 00:15.
Igandea: 21:30.

Manchester frente al mar
Ostirala: 16:15, 18:30.
Larunbata: 21:30.
Igandea: 18:30.

Múltiple
Ostirala: 16:00, 18:15, 20:25, 22:45, 00:30.
Larunbata: 16:00, 18:15, 20:25, 22:45, 00:30.
Igandea: 16:00, 18:15, 20:25, 22:45, 00:30.

Resident Evil: Capítulo Final
Ostirala: 16:15, 19:00, 22:45, 00:50.
Larunbata: 16:15, 22:45, 00:50.
Igandea: 16:15, 20:40, 22:45.

XXX: Reactivated
Ostirala: 15:50.
Larunbata: 15:50.



LABURPENA

Hasta el último hombre
Zuz.: Mel Gibson. **Herr.:** AEB.(2016). **Aktoreak:** Andrew Garfield, Sam Worthington, Hugo Weaving, Vince Vaughn, Teresa Palmer, Luke Bracey, Rachel Griffiths, Richard Roxburgh, Matt Nable, Milo Gibson, Ben O'Toole, Richard Pyros. **Iraupena:** 131 minutu.

Desmond Dossen istorioa

Mel Gibsonen proposamen berriak, pertsonaia erreala bat du ardatz: Desmond Doss kontzientzia-objektorea. Arma bat ez zuela hartuko eta, borroka egin zuen aginte militarrekin. Azkenean, 1945eko Okinawako gatazkan, II. Mundu Gerraren testuinguruan, frentera joan zen, baina armarik gabe aritu zen borrokan, bere bandoko soldaduei bizitza salbatzen, sendagile gisa.

Andrew Garfield aktoreak gorputzu du 2006an zendu zen Doss soldadua. Objektore bati ematen zitzaion lehenengo Ausardiaren aitortza den domina jaso zuen soldadua bere balentriatik. Hamar urteren ostean, Mel Gibsonek zuzendari lanak

hartu ditu berriz eta oso kritika onak jaso ditu azken lan honengatik. Kritika horien emaitza dira hainbat sarietarako eskuratutako izendapenak, bai filmak baita bere protagonistak ere. Besteak beste, Oscar sarietarako sei izendapen lortu ditu filmak, tartean film onena eta zuzendari onenarena daude. Urrezko Globoetan hiru izendapen ditu ere drama onenaren mailan, zuzendari onenari eta aktore onenagatik Andrew Garfield. BAFTA sarietan ere beste bost izendapen ditu. Okendo Zinema Taldearen zine forum saioa izanda, ingelesez, jatorrizko hizkuntzan emango da gaztelarazko azpitituluekin.

ZABALETA BERRI BIZIGUNEA



7 hitzartutako
ETXEBIZITZA BERRI
LASARTEN

2 LOGELA +12m²ko terraza
199.000 € tik + BEZ

3 LOGELA +16m²ko terraza
215.500 € tik + BEZ

TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN,
100m²taraino

BISTA EZIN HOBEAK SANTA BARBARA ALDERA
PERTSONALIZAZIO GUZTIAREKIN



DENA BARNE

Garajea, sukaldea, armairuak, pertsonalizazioa.

Izen emateko azken eguna: **APIRILAK 11**



943 36 89 42
www.zabaletaberri.es



R.P.S. 175/15 I.L.G.

**MERKE
ALDIA**

**2 mō betaurreko
graduatu**
erreflexuen aurkako leiarrekin

77€

aurretiko prezioa: 97€

www.multiopicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

20 urte baino gehiagoko esperientzia



- ✓ Higienea bermatua
- ✓ Haurrekin ere esperientzia
- ✓ Bizarra moztea eta kentzea
- ✓ Ilea moztea labanez, guraizez edo makinaz



Beko kale 4 (BM eta Andre Joakina-Enea ondoan), Lasarte-Oria • 943 841 972